

PRACTICUM Ieko PROGRAMA PEDAGOGIAKO GRADUA

HEFA - UPV/EHU



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

AURKIBIDEA

1.- SARRERA	2
2.- PROFILA, EGINKIZUNAK ETA BALIZKO JARDUERA ARLOAK... ..	2
3.- I. PRACTICUMEAN GARATU BEHARREKO KONPETENTZIAK... ..	4
4.- I. FASEAREN GARAPEN METODOLOGIKOA.....	4
4.1.-PRESTAKUNTZA EDUKIEI ETA JARDUN PROFESIONALAREKIN	
DUTEN LOTURARI BURUZKO GOGOETA	
4.2.- JARDUERA ETA KRONOGRAMA	
5.- II. FASEAREN METODOLOGIA.....	7
5.1.- EGUNEROKOA ETA MINTEGIAK	
5.2.- OROITXOSTENA	
6.- EBALUAZIOA	9

1.- SARRERA

I Praktikaldia Pedagogiako Gradu VI. moduluan kokatzen da. Modulu honetan, ikasleek aurreko moduluetan ikasitakoa testuinguru zehatzetan aplikatuko dute. Horrela, modulu honetako irakasgaietan zehar, ikasleek lehen harremana izango dute mundu profesionalarekin I Praktikaldiaren bitartez, eta, bestalde, hautazko irakasgaiek aukera emango diete ikasleei hezkuntza-esparru jakin batzuetara hurbiltzeko.

Praktikaldi honek, hautazko irakasgaiekin batera, non hezkuntza, lan-mundua, hezkuntza-aholkularitza eta garapen-ikaskuntza zailtasunei buruzko esparruak lantzen diren, aukera emango dio ikaslegoari hezkuntza-praktikaren hainbat errealitatetara hurbiltzeko.

Practicuma funtsezko elementua da Pedagogiako Gradu ikasketan planaren barruan. Izan ere, Practicumak aukera ematen du unibertsitateko ikasketak lanbide-jardunera gerturatzeko, testuinguruan kokatutako esperientzia praktikoa eskuratzeko, hezkuntza- edo gizarte-errealitatera gerturatzeko eta errealitate horrekin integratzeko eta gerora ikaslearen lanbidea izango denari behatu, hasiera eman eta egiaztatzeko.

3. mailako Pedagogiako Gradu Practicuma bigarren lauhilekoan garatzen da urtarrilaren azken astetik maiatzaren erdialdera bitarte. Hau da, 2026ko otsailaren 2tik maiatzaren 15a arte. 6 kredituko lana bi fase ezberdinetan aurrera eramaten dira.

Pedagogiako Gradu I. Practicuma bi fase nagusitan gauzatuko da:

- I. Fasea Fakultatean (kreditu 1/aurrez aurreko 17 ordu): 2026ko urtarrilaren 26tik urtarrilak 30a arte.
- II. Fasea Praktiketako zentroetan (5 kreditu/aurrez aurreko 83 ordu): 2026ko otsailaren 2tik maiatzaren 15a arte.

2.- PROFILA, EGINKIZUNAK ETA BALIZKO JARDUERA ARLOAK

Pedagogiako graduduna esku-hartze pedagogikoa, prestakuntza, ebaluazioa eta baliabideen eta proiektuen kudeaketa gauzatzeko prestatuta dagoen profesionala eta hezkuntzaren arloko aditua da. Hauxe izango da gradudunaren jardueraren xedea: Giza Eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza inklusiboa, eleanitza, komunitarioa eta pertsonen bizi osoan zeharreko gizarte-ongizateari begirakoa gauzatzea, erakunde, gizartearen, kulturaren eta lanaren arloetan.

Horretarako, hezkuntzaren arloko arazoak konpontzeko gizarte-

trebetasunak garatu beharko ditu, gizarte-ingurunea errespetatu beharko du, pertsonen arteko harremanen arloan aditua izan beharko du, erabakiak hartzeko gaitasuna eta jarrera arduratsua izan beharko ditu, eta gizarte-zientzien eta giza zientzien arloek berezko dituzten konpetentziak beharko ditu.

Profesionalak garatu beharreko eginkizunen artean honako hauek aurkitzen dira:

- Gizarte eta kultur testuinguru ezberdinen **diagnostikoa** eta hezkuntzaren arloko **esku-hartzea**.
- Antzemandako premiei erantzuteko jarduera pedagogikoak **antolatzea**.
- Zerbitzu, proiektu eta hezkuntza erakundeen **aholkularitza**, Hezkuntza-programak **diseinatzea, martxan jartzea eta ebaluatzea**.
- **Hezkuntza edota lanbide orientazioa** prestakuntza eta kultura-baliabideetatik edo baliabide profesionaletatik abiatuta.
- Diziplina anitzeko taldeetan **parte-hartzea**, prestakuntza egoerei erantzuteko eta jarraipena egiteko.
- Entitate publiko pribatu edota zentroen **antolakuntza eta kudeaketa**.
- **Prestakuntzarako materialen ekoizpena** hainbat euskarrietan.
- Formazio ibilbide eta programen **diseinu, abiarazte eta ebaluazioa**
- Formatzaile eta hezkuntza eragileen **formazioa**.

Pedagogiako Profesionalaren jarduera arloak honako multzo hauetan sailka daitezke:

- 1.- Hezkuntza arautua
- 2.- Teknologia berrietako hezkuntza
- 3.- Administrazio publiko orokorra eta bereziki hezkuntzaren atala
- 4.- Osasuna
- 5.- Lana eta Gizarte Gaiak
- 6.- Espetxeak
- 7.- Justizia Saila (Epaitegiak)
- 8.- EMAKUNDE Emakumearen Euskal Erakundea
- 9.- Kalitatearen kudeaketa eta aldaketa-prozesuak
- 10.- Antolakuntza eta enpresa
- 11.- Aisialdia eta denbora libre (denbora librearen pedagogia)
- 12.- Kultura eta hizkuntza (kultur eta hizkuntza sormenaren eta transmisioaren kudeaketa pedagogikoa)
- 13.- Adinakoak (pedagogia gerontologiakoa)
- 14.- Elbarri zuzendutako Zerbitzuak
- 15.- Erresidentzia eta familia Zerbitzuak

3.- PRACTICUM I-ean GARATU BEHAR DIREN KONPETENTZIAK

1. Esku-hartze pedagogikorako arlo profesionalen, hezkuntza-proiektuen, jarduera-planen eta horiek gauzatzen diren sareen ikuspegi orokorra eraikitzea.
2. Ikasketa-trebetasunak garatzea, praktiketako testuinguruetan txertatzeko.
3. Jardun profesionalaren analititik jakintza eskuratzea, eta jakintza hori, graduako moduluetan eskuratutako ezaguerekin erlazionatzea.
4. Ikaskuntzarekiko jarrera positiboa izatea, hezkuntzako esku-hartzeaeta garapen profesionala hobetzen laguntzeko.
5. Ingurumen, gizarte eta ekonomia arazoen izaera sistemikoa ulertzen du, tokiko eta nazioarteko mailan, haien arteko harremanak eta etorkizuneko erronkak kontuan hartuta,.
6. Baliabideak modu jasangarrian erabiltzea, ingurumen zein gizartean eragin negatiboak saihestuz.
7. Jasangarritasuna sustatzen duten prozesu komunitarioetan parte hartzea.
8. Bai pertsonalki zein profesionalki iraunkortasunaren printzipio etikoen arabera jokatzeko du.

4.- I. FASEAREN GARAPEN METODOLOGIKOA

4.1.- PRESTAKUNTZA EDUKIEI ETA JARDUN PROFESIONALAREKIN DUTEN LOTURARI BURUZKO GOGOETA

Lehenengo fase hau fakultatean egingo da, zentroetara joan aurretik. Helburua aurretiko prestakuntzaren eduki adierazgarrienak jarduera praktikoekin erlazionatzea izango da, pedagogoaren trebetasun profesionaletan sakonduz.

Prozesu metodologikoa lau gune hauen inguruan egituratuta dago:

1.- Practicuma aurkeztea eta kokatzea

Practicumaren ildo nagusiak aurkeztea eta argitzea: egitura, egin beharreko jarduerak eta ikasleek hartu beharreko konpromisoak eta izan beharreko jarrera.

Practicumaren inguruan indarrean dagoen araudia azaldu eta ikasleek bete beharreko eranskinak aurkeztea.

2.- Harreman eta deontologia profesionala

Ikasleek aurreko eduki teoriko-praktikoei buruz egindako lanari ekingo diote berriro, irakurketa patxadatsua egiteko distantzia pertsonaletik eta aurreko ikasturteetan eraikitzen joan den ikaskuntzetatik.

Jarduera praktikorako, profesionalen arteko erlazioak lantzeko, eta horretarako funtsezkoa izango da pedagogiaren jarrera etiko eta deontologikoak barneratzea.

3.-Tresna metodologikoak: behaketa

Ikasleek lanbide pedagogikoaren berezko hainbat tresna metodologiko arakatzen dituzte, hezkuntzako analisi-, esku-hartze- eta hausnarketa-prozesuetan duten erabilgarritasuna ulertzeko. Hurbilketa horri esker, tresna horiek praktika pedagogiko kritikoagoa, sistematikoagoa eta oinarrituagoa lortzen nola laguntzen duten jakin daiteke.

Esparru horren barruan, arreta berezia eskaintzen zaio behaketa-egunkariari, praktika-prozesuan funtsezko tresnatzat hartzen baita. Erabileraren bidez, ikasleek hezkuntza-testuinguruetan bizi izandako esperientziak erregistratu, interpretatu eta horiei buruz hausnartu ahal izango dute, eta, horrela, beren prestakuntza-prozesuari buruzko begirada sakonagoa eta kontzienteagoa bultzatuko dute.

4.-Garapen iraunkorrerako hezkuntza

Ikasleak iraunkortasunaren kontzeptua ulertzen murgiltzen dira, haren dimentsio anitzak aztertuz (ingurumena, gizartea, ekonomia eta kultura) eta gaur egungo munduan duten garrantziari buruz hausnartuz. Prozesu horri esker, lotura esanguratsuak ezar daitezke iraunkortasunaren eta pedagogiaren funtsezko printzipioen artean, gizarte-eraldaketarekin eta giza garapen integralarekin konprometitutako diziplina gisa ulertuta.

Oinarri horretatik abiatuta, ikaskuntza horiek Practicumaren II. fasea garatuko den praktiken testuinguru espezifikoekin lotzera gonbidatzen dira ikasleak. Lotura horrek hezkuntza-inguruneekiko begirada kritiko eta konprometitua bultzatzen du, etorkizuneko lan profesionalean iraunkortasuna zeharkako ardatz gisa txertatuko duten esku-hartze pedagogikoak sustatuz.

4.2.- JARDUERAK ETA KRONOGRAMA

SAIOA	AURREZAUERREKO JARDUERAK	EGUNA ETA ORDUA	LEKUA
FORMAKUNTZA ASTEAK			
1	Aurkezpen orokorra Practicuma aurkeztu eta Kokatu:	Urtarrilak 30	Gelategiko 2.1. gela
	Sarrera	9:00-9:45	
	Prestakuntza Proiektua	10:00-10:50	
2	Praktiketako ikastetxeko instrukture eta ikasleen lanari buruzko hausnarketa:	Urtarrilak 30	Gelategiko 2.1. gela
	Behaketa	11:00-12:00	
	Hasierako tutoretza	12:00-13:00	
PRAKTIKALDIKO MINTEGIAK			
3	Practicum Ieko konpetentziengaineko hausnarketa.	Otsailaren 24ko astean	Ezartzeke
4	Teoria eta hezkuntza praktikari buruzko hausnarketa. Lanaren etika.	Martxoaren 24ko astean	Ezartzeke
5	Praktiketako ikastegian kokatuz. Egunerokoak, zeri kasu egin eta nola jaso.	Maiatzaren 5eko astean	Ezartzeke

Mintegien datak eta lekuak ikasturtean zehar zehaztuko dira.

5.- II. FASEAREN METODOLOGIA

5.1.- EGUNEROKOA ETA MINTEGIAK

Practicum-ean zehar gogoeta bultzatzeko eta Azken Txostena errazago egin ahal izateko, ikasleak oharrak hartuko ditu Eguneroko batean. Egunerokoa Txostenean sartu beharko da, eranskin gisa.

EGUNEROKOaren ezaugarriak:

- Esperientziaren historia finkatzeko eta gogoeta-prozesuak errazteko, praktiken egunerokoa idatziko ikasleak, bertan parte hartu dueneko egoera eta testuinguruak deskribatuz.
- Bereizi behar dira: behatzen dena eta zuzeneko esku-hartzea, ekintzei buruz egiten den deskribapena eta norberaren iruzkinak direnak, hausnarketak edota iritziak behatutakoaren gainean edo zuen esku-hartzearen gainean. Norberaren sentimenduak eta emozioak, prozesuan oso garrantzitsuak izan arren, errealitate-deskribapenetatik bereizi behar dira.
- Saiatu behar gara egoerak gertatu ahala egunerokoa idazten. Denbora pasatzen uzten bada xehetasunak eta erreferentziak galtzeko arriskua handiagoa da.

MINTEGIAK

Elkarlanerako guneak izan dira mintegiak, bertan egingo direlarik zentroetan kausitutakoaren inguruko gogoetak, baita azken txostenaosatzen dute puntuen ingurukoak ere.

5.2.- OROITXOSTENA (gehienez 15-20 orrialde)

Praktikei amaiera emateko, ikasleek Practicumeko oroitxostena egingo dute. Bertan, zer egoeratan eta testuingurutan jardun diren azalduko eta analizatuko dute.

Lana DIN A4 tamainako orrietan idatzi behar da, Times Roman letra-motan, 12 tamainan eta lerroarte bakuna utzita.

Txosten horretan ondorengo puntuak jasoko dira:

1- Praktiketako zentroko testuinguruaren identifikazioa eta analisisa

- Testuinguru orokorra: identifikazio datuak, kokalekua, zentro mota, zein erakunderen menpe dagoen, ekonomia-erregimena eta zentroaren jarduera arloa arautzen duen araudia.
- Zentroa kokatuta dagoen esparru soziokulturala. Zer herritar motari zuzenduta dagoen, eskaintzen eta eskatzen diren zerbitzuak, proiektuak eta programak, ezaugarriak, etab.
- Zentroaren antolakuntza testuingurua. Zuzendaritza eta kudeaketa organoa. Lantaldea: profesionalak, funtzioak, lan metodologia. Garatzen diren sareak.

2- Praktika prozesua

- Pedagogoen profil profesionala: heziketa akademiko-zientifikoari buruzko gogoeta orokorra, trebetasunak eta jarrera pertsonalak.
- Zentroaren beharren identifikatzea eta testuinguru jakin batean txertatzea profil profesionalari dagozkion konpetentziak erantsiz.
- Praktika programaren diseinua eta erantzukizun maila. Banakako praktika plana: programaren helburuak, ardurak, bere gain hartu dituen eginkizunak. Metodologia: jarduera programa, estrategiak eta baliabideak.

3- Burututako lanaren inguruko analisia eta gogoeta

- Heziketa ibilbidearen analisia. Ikaskuntza adierazleak. Gainditu behar izan dituen zailtasunak, eskuratutako ikaskuntzak eta hobetzeko iradokizunak. Lanbidearen auto-pertzepzioa. Ikasleak lanbide proiektuari egin dizkion ekarpenak. Praktika proiektuko konpromisoaren inguruko gogoeta. Practicumaren alderdi positiboak eta hobetzekoak.

4- Praktiken inguruko balorazioa eta bizipen pertsonala

- Autoebaluazioa.
- Practicum-eko I. Fasearen Balorazioa.
- Fakultatean egindako Practicumeko II. Fasearen Balorazioa (mintegietakoa).
- Zentroan egindako Practicumeko II. Fasearen Balorazioa (zentroetako praktikak).

Ohar garrantzitsua: Behaketen Egunerokoa, Practicum prozesuan zehar hausnarketa gisa eginga eta azken oroitxostena egiteko erabiliko dena, eranskin gisa txertatuko beharko da amaierako oroitxostenean.

6.- EBALUAZIOA

Practicumaren ebaluazioa egiterakoan Fakultatean egindako lana zein Praktiketako Zentroan egindako lana izango dira kontuan.

Fakultatean antolatutako jarduera, mintegi eta tutoretza guztietara joatea eta bertan parte hartzea derrigorrezkoa da (eskatuko den gutxieneko nahitaezko bertaratzea % 80 da, bai I. faserako, bai II. faserako). Asistentzia eta parte-hartzea, bai lehen zein bigarren fasean, betetzen ez bada azken **kalifikazioan islatuko da, arrazoi honengatik ez gainditzera iritsi daitekeelarik. Practicumeko Batzordeak egoera honetan aurkitzen diren ikasleen egoera kasuan kasu aztertuko du.**

Bi atal horiek ondoko baloreak izango dituzte:

- 1.- Praktiketako Zentroan egindako lana bertako instruktoreak ebaluatuko du eta bukaerako notaren %50 izango da.
- 2.- Fakultatean egindako lanari dagokionez, bukaerako notaren %50, atal desberdin hauetan banatua egongo da:
 - % 20 DILAN lanarena.
 - % 10 jardueretako lanak, mintegietara etortzea eta jarrera.
 - % 20 Azken Oroitxostena.

Etika eta plagioa

Adimen Artifizial Generatiboaren (AAG) erabilera orokortzen ari da goi-mailako hezkuntzan. Horren aurrean, EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatetik AAGaren erabilera arduratsua egitea sustatzen da. Horrek esan nahi du: (1) erabili den tresna eta modua argi eta garbi adierazi behar direla, eta (2) AAG laguntza-tresna gisa baliatu behar dela, beti ere makinak sortutako edukiak egiaztatuz eta norberaren ekarpen pertsonalarekin osatuz. Erabilera arduratsua ez betetzeak (hala nola, edukiak bere horretan kopia eta erabiltzea) UPV/EHUren plagio-protokoloa aplikatzea lekarke, dagokion irakasgaiari izan ditzakeen ondorioekin.

7.- ERANSKINAK

Eranskina 1

Gaitasunak eta ikas emaitzak

Konpetentzia	Maila	Ikas-emaitza
1. Esku-hartze pedagogikorako ikuspegi orokorra eraikitzea	JAKIN	Hezkuntza-sistemaren egitura, esku-hartze pedagogikoaren oinarriak eta sare profesionalen funtzioak ezagutzen ditu.
	NOLA EGITEN JAKIN	Hezkuntza-proiektu baten osagaiak identifikatzen eta horien arteko harremanak ulertzen ditu.
	ERAKUTSI + EGIN	Kasu praktiko batean, esku-hartze pedagogiko baten ikuspegi orokorra eraikitzen du, sare profesionalak kontuan hartuta.
2. Ikasketa-trebetasunak garatzea	JAKIN	Ikasketa-trebetasun nagusiak eta horien garrantzia ezagutzen ditu.
	NOLA EGITEN JAKIN	Praktika-testuinguruetan ikasketa-trebetasun horiek nola aplikatu ulertzen du.
	ERAKUTSI + EGIN	Praktika batean, ikasketa-trebetasunak modu eraginkorrean erabiltzen ditu, egoeraren arabera egokituz.
3. Jardun profesionala analizatzea eta jakintza eskuratzea	JAKIN	Jardun profesionalaren analisiaren garrantzia eta ezagutza teorikoaren oinarriak ezagutzen ditu.
	NOLA EGITEN JAKIN	Esperientzia profesionaletik abiatuta, ezagutza berria nola eraiki eta tituluko edukiekin nola lotu ulertzen du.
	ERAKUTSI + EGIN	Praktika baten ondoren, bere jarduna aztertzen du eta horretatik ateratako ondorioak tituluko ikaskuntzarekin lotzen ditu.

4. Ikaskuntzarekiko jarrera positiboa izatea	JAKIN	Ikaskuntzarekiko jarreraren eragina garapen profesionalean ezagutzen du.
	NOLA EGITEN JAKIN	Jarrera positiboak nola laguntzen duen hobekuntzan ulertzen du.
	ERAKUTSI + EGIN	Bere ikaskuntza-prozesuan jarrera positiboa erakusten du, ekimenak hartuz eta hobekuntza aukerak bilatuz.
5. Ezagutzaren testuinguruzko azterketa	JAKIN	• Iraunkortasun eta Garapen Jasangarriaren kontzeptuak eta haien dimentsio ezberdinak ezagutzen ditu. • Arazo horiei aurre egiteko proposatutako irtenbideak ezagutzen ditu.
	ERAKUTSI + EGIN	• Bere esparru profesionaletik, iraunkortasun arazoak azaltzen jakin behar du, eta horiei aurre egiteko metodologiak eta estrategiak proposatu.
6. Baliabideen erabilera jasangarria eta inpaktu negatiboen prebentzioa	JAKIN	• Hezkuntza-ekintzek gizartean, ekonomian eta ingurumenean izan ditzaketen inpaktuak identifikatzeko oinarrizko ezagutzak ditu.
	NOLA EGITEN JAKIN	• Bere lanbide-esparruko proiektuetan gizarte-inpaktua baloratzeko irizpideak eta tresnak erabiltzen jakin behar du.
	ERAKUTSI + EGIN	• Proiektu baten jarraipena eta ebaluazioa egiteko gai da, iraunkorra izan dadin.
	JAKIN	• Bere lanbide-esparruko proiektuetan justizia soziala baloratzeko irizpideak ezagutzen ditu.
7. Jasangarritasuna sustatzen duten komunitate-prozesuetan parte hartzea	ERAKUTSI + EGIN	• Aldaketa eragile gisa jarduteko gai da, komunitate-proiektu eta programen plangintza, inplementazio eta ebaluazio prozesuetan parte hartuz.

8. Printzipio etikoen aplikazioa	JAKIN	• Bere lanbide-esparruko iraunkortasunarekin lotutako arazo etikoak ezagutzen ditu. • Konpromiso sozialaren eta gizarte-erantzukizun korporatiboaren kontzeptuak ezagutzen ditu.
	NOLA EGITEN JAKIN	• Iraunkortasunaren aldeko programak, proiektuak eta hezkuntza-jarduerak aztertzen eta ebaluatzen jakin behar du.
	ERAKUTSI + EGIN	• GJHak sustatzeko hezkuntza-esku-hartze proposamenak diseinatzeko, planifikatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko gai da.